



2014/01/13 12.2C

Zerbitzuak Noaua! Hemeroteka Argazkitegia Publizitate tarifak

Noaua!! albistek

Paulinoren sagardo tragoarekin hasi dute txotx denboraldia Hernanin

[2014-01-13]

Paulino Ibargoiaren usurbildarrak izan zuen atzo Hernaniko txotx denboraldia inauguratzeko ohorea, Euskal Telebistan lankide dituen Kontrako Eztarria saioarekin batera. Asier Olaizolak ireki zuen txotxa, eta sagardoa zerbitzatu eta edalontziak gora jasota, "Hau da Hernaniko sagardo berriya!" esanez dastatu zuten 2014ko lehen sagardo tragoa Paulinok, Anjel Alkainek, Xabier Eguzkitzek, Iker Galartzak eta Jon Plazaolak. Umoretsu joan zen igande eguerdiko ekitaldia, txisterik kontatzeko tarte ere hartu zuten eta, Paulinok eta Alkainek.



Astigarragaren txanda asteazkenean

Hernaniko ekitaldiaren ostean, etzi, asteazken honetan inauguratuko dute txotx denboraldi berria Astigarragan, Alorrenea sagardotegian; urtarrilaren 15ean, 13:45ean hasiko den ekitaldian. Kalakan taldekoek izango dute, "gure sagardo berria" dastatzeko ohorea.

Hortik aurrera, sagardotegietarako joan etorriak hasiko dira. Usurbilen, Aginagan eta Zubietan, guztira sei guneeetan dastatu ahal izango da sagardo berria: Iruin, Aialde-Berri, Urdaira, Aginaga, Arratzain eta Saizar sagardotegietan hain zuzen.

Irudia: Hernaniko Kronika.

Zabaldu: Twitter Facebook Zabaldu Bildu Del.icio.us Aupatu

 Izena: Posta elektronikoa:

Mezua:

Bidali

Urtarrila 2014

As	As	As	Os	Os	La	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Zorion Agurrak



Zorionak Xare! Urtarrilaren 9an bederatzi urte beteko dituzu. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu bat Aginagako irakasle eta ikasleen partetik.



Usurbilgo baserriak eta baserritarrak

Usurbilgo ondarea ezagutzen

Bisitari kopurua

0207022